



OT-020/02-PTP

TEODORO OLEA ITURREGI, EUSKAL HERRIKO LURRALDE ANTOLAKETAREN
BATZORDEKO IDAZKARIAK.

ZIURTATZEN DUT: Uztailaren 26an Vitoria-Gasteizen Euskal Herriko Lurralde Antolaketaren Batzordeak egindako 4/2007 bileran, kideen gehiengo absolutua osatzen zuten bertaratuek aho batez, besteak beste, honako hau erabaki zutela:

“ **1.-** Hasieran onartu aurretik, Igorreko Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Planaren berri ematea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamenduaren 4/1990 Legearen 13.5. artikuluan adierazitakoarekin bat etorrira, honako termino hauetan:

I. INGURUNE FISIKOA

I.a.- Lurzoru Urbanizaezinerako ezarritako Antolamendu Kategorien aldeko txostena egitea, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan adierazitakoekin bat datozelako.

I.b.- Bertako Landaretza Interesgarriko Eremuen eta Babesteko lurzoruen (Basoak, eta Nekazaritzakoak eta Abeltzaintzakoak eta Landazabala) mugatze “orientagarriari” dagokionean, espedienteak argi definitu beharko du Udal Plangintzak, Lurraldearen Zatiko Plana aldatu gabe, zehaztapenak aldatu ahal izateko duen gaitasuna.

I.c.- Lurzoru Urbanizaezinaren kategoria diferenteetarako ezarritako erabileren erregimenaren alde balioztatzea, LAAen Ingurune Fisikoaren Erabileren Jatorrian ezarritako zehaztapenekin bat datozelako.

I.d.- Abenduaren 22ko 415/98 Dekretu bidez EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeke Lurraldearen Arloko Plana (Isurialde Kantabriarra) behin betiko onartuta, Lur gaineko Urak Babesteko Lurzoru gisa biltzen diren esparruen zein horiek erregulatzeke erabilitako irizpideen aldeko txostena egiten da, edozein kasutan, LAPen ezarritako Araudira jotzen dutelako.

1.e- 2007ko apirilaren 20ko datarekin Uren Zuzendaritzak igorritako txostenaren arabera urek gainezka egin dezaketen eremuei eta ingurune hidrikoari dagokienean, espedientearen aldeko txostena egitea.

1.f- Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetzarako arloan espedientearen aldeko txostena egitea, lotesleak izango diren honako baldintza hauek betetzen badira:

1. Espazio Naturalei lotuta:

- 92/43/CEE Arteztarauko 6.2. artikuluan ezarritako prebentzio-erregimena betez, LZPak, bere kartografian eta araudian, Zadorra Sistemako Urtegiak (ES2110011) Natura 2000 Sareko Interes Komunitarioko Tokia jaso beharko du, eta Habitat Arteztarauko 6. artikuluko 3. idatz-zatia betez, Toki hori kontserbatzeko helburuetan ondorio nabarmenak ez daudela ziur ez dauden Eremu



Funtzionaleko plan eta proiektuak behar bezala ebaluatzeko obligazioa esplizituki adierazi beharko du.

2. Flora eta faunarekin lotuta:

- Bisoi europarrarentzako Interes Berezikiko Eremuekin (Dima eta Arteako asentamenduak, eta Areatza eta Zeanuri artean berriz aztertzekeko lurzorua) bat datozen jardueren proposamen berrientzako, esplizituki adierazi behar da garapen-proiektuek eta -planek Foru Organo eskudunaren derrigorrezko txostena izan behar dutela, Bizkaiko Lurralde Historikoan Bisoi Europarraren (Mustela lutreola) Kudeaketa Plana Onartzen duen 2006ko ekainaren 19ko 118/2006 Foru Aginduaren 10. artikulua adierazten duen bezala.
- Igorreko LZPk esplizituki adierazi behar du proposatutako jarduerak bete ahal izango direla, onartutako Kudeaketa Plan bat duten Arriskuan dauden Espezieen Euskal Katalogoko espezieentzako zehaztapenak eta neurriak betetzen badira. Hala gertatzen da bisoi europarraren eta *Diphysastrum alpinum* eta *Ranunculus amplexicaulis* flora-espezieen kasuan.

II.- HIRI ASENTAMENDUAK

II.a.- Arzetarauetan adierazitakoaren antzeko bizitegi-gaitasuna planteatzen duenez, LZPk proposatutako Bizitegi Kuantifikazioaren aldeko txostena egiten du. Hala ere, LZPk datu estatistikoaren azken eguneratzea egin beharko luke.

II.b.- Jarduera Ekonomikoetarako Lurzoru Publikoak eta Ekipamendu Komertzial Publikoak Sortzeko LAPen irizpideetan oinarrituta, garapen iraunkorrenak ez diren balioetara heldu den azken urtetan Eremu Funtzionalean emandako Jarduera Ekonomikoen lurzorua asko handitu dela aitortuta, aipatu behar da LZPren proposamena balio minimotan mantendu egiten dela jarduera-mota honetarako lurzoru-aurreikuspenari dagokionean. Balio horiek, lurzoru 20 Ha inguru gehiagoren kalifikazioa izapidetzeko azterketa egin beharko litzatekeela iradokitzen dute.

II.c.- LZPk proposatutako Lurralde Ereduaren barne "Okupazio Muga Esparruak" izenekoen aldeko txostena egitea. Hala ere, espedienteak, Araudian, beharrezko tresnak sartu beharko litzateke, eman daitezkeen bizitegien eta jarduera ekonomikoen hazkuntza beste toki batean ezartzeko –jada onartu dituzten beste hainbat Lurraldeen Zatiko Planetan jaso bezala– lurralde-babesa eman ahal izateko, LZP aldatu beharrik gabe.

III.- ESPAZIO LIBREAK ETA EKIPAMENDUAK

Espazio Libre eta Ekipamenduei dagozkien alderdietan LZPk egindako proposamenen aldeko txostena egitea.

IV.- GARRAIO, KOMUNIKAZIO ETA ZERBITZUEN AZPIEGITURAK

IV.a.- LZPren proposamenak Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailean eta Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuan aurkeztea, Bizkaiko Errepideen LAPean aurreikusitako jardueren alternatiba gisa BI-2543 errepideari (Dimako saihebidetza eta Dima-Barazar konexioa) dagokionean.

IV.b.- Era berean, trenbide-sarearen inguruan aurreikusitako jarduerak Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailari aurkeztea.



2.- Ziurtagiri honekin batera doazen Uren Zuzendaritzak (I. Eranskina), Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak (II. Eranskina), Ingurumen Plangintza, Ebaluazio eta Kontroleko Zuzendaritzak (III. Eranskina), eta Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzak (IV. Eranskina) egindako txostenak Bizkaiko Foru Aldundira igortzea.”

Eta horrela jasota gera dadin, Bilera honen akta onartu aurretik luzatu eta sinatu dut ziurtagiri hau, Vitoria-Gasteizen, 2007ko uztailaren 26an.

IDAZKARIA



Izta.: Teodoro Olea Iturregi.